




Etxebizitzen salmenta %15,6 jaitsi zen abuztuan

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Abuztuan, etxebizitzen salmenta %15,6 murriztu zen EAEn, aurreko urteko hil beraren aldean. Beherakada horrek, hein handi batean, interes tasen gorakadari eta hipotekaren garestitzeari erantzuten die. Zehazki, lehen zortzi hilabeteetako zifra metatuak 15.000 etxebizitza baino gutxiago izan zituen, aurreko urteko aldi bereko kopurutik urrun.

Industriaren prezioek behera egin dute berriro

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **industriaren prezioak %3,0 jaitsi ziren irailean aurreko urteko hil beraren aldean.** Hala, adierazle horrek sei hilabetez jarraian izan ditu urte arteko tasa negatiboak, beste behin ere, energiaren prezioen bilakaeraren ondorioz (-%6,4).



Azalera handietako salmentak %2,4 hazi ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Irailean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %2,4 handitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Igoera hori elikagaien salmentan kontzentratu zen. Halaber, aurreko hilekoetan bezala, sektoreak enplegua sortzen jarraitu zuen (%1,5), baina erritmo apalagoan.

Enplegua %1,6 igo zen, BAiren arabera

Enplegua EAEn
Lana duten pertsonak. Milakoak



Iturria: INE.

BAiren arabera, EAeko landunen kopuruak %1,6 egin zuen gora hirugarren hiruhilekoan. Igoera horren ondorioz, zifra absolutuetan ia 975.000 landun zeuden. Nabarmentzekoa da emakumeen bilakera, %1,9ko hazkundea izan baitzuten; gizonen kasuan, berriz, igoera %1,3 izan zen.